

Hitzez Baserriko Emakumeen Elkarteak urtean zehar hainbat tailer antolatzen ditu. HITZELKARTEA

## Landa eremuko Emakumeen Topaketa egingo dute bihar

**Gizartea** » Jardunaldian Gipuzkoako, Bizkaia eta Arabako landa eremuko emakumeak elkartzuko dira

**AIORA LARRAÑAGA**

Bihar Euskadiko Landa eremuko Emakumeen III. Topaketa egingo dute Zumaian, eta eskualdeko hainbat emakume baserritar bil-

tzen dituen Hitzez Elkarteko kideak ere bertan izango dira.

### Elkadararen garrantzia

Hitzez Elkarteko lehendakari Eli Manterolak azaldu duenez, Maite Gonzalez nutricionista eta osteko-patak Hezuraren eta artikulazioen zaintza elikaduraren bidez hitzaldia emango du bihar 10:00etan Aita Mari Zinemian. «Aurreko urtean topaketan parte hartu zuten emakumeen eskaerari erantzunez

aukeratu dugu hitzaldiko gaia», adierazi du. Hitzez Elkarteaz gain, beste hainbat elkartetako kideek ere ekimenen parte hartuko dute. «Eusko Jaurritzakoa Landa Garapeneko Departamentutik sorturiko komisioren parte hartzen dugun elkarteok izango gara topaketan. Bizkaiaiko Landa XXI, Arabako Gure Soroa eta Asanacavali elkarteak eta gu. Dena dela, herritar oro bertan parte hartzea gombidatua dago», nabarmendu du.

## «Emakume baserritar askok nekea eta iritsi ezina sentitzen dute»

**ELI MANTEROLA** » Hitzez Baserriko Emakumeen Elkarteke lehendakaria

**Topaketa** » Ekimeneko parte-hartzaileen osasuna hobetzeko argibideak emango dituzte biharko topaketan

**A. LARRAÑAGA**

Landa Eremuko Emakumeen batzordeko partaidea eta Hitzez Baserriko Emakumeen Elkarteke lehendakaria da Eli Manterola (Zarautz, 1959). Biharko Zumaian antolatu duten Euskadiko Landa eremuko Emakumeen III. Topaketaren nondiki-norakoak azaldu ditu.

**Zein da Euskadiko Landa eremuko Emakumeen III. Topaketaren helburua?**

Ekimenak bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, parte-hartzaileen osasuna hobetzeko argibideak emango ditugu; eta bestetik, hiru lurralderako landa eremuko emakumeak elkarri. Emakumeen arteko elkarlana bultzatzea da gure

asmoa. Aurretigoa elkarren garen hirugarren aldia da, eta orain arte egin ditugun topaketak oso aberasgarriak izan direla aitortu behar dugu; iaz, esaterako, landa eremuko 100 emakume bildu ginen...

### Zein gai lantzen dituzte horrelako topaketetan?

Orain arte egin ditugun topaketetan landa inguruko emakumeek izan dituzketen osasun arazoak dira. Osteguneko saloan esaterako Maite Gonzalez nutricionista eta osteopata etorriko da hitzaldia ematera eta elikadura izango da topaketako gai nagusia. Gonzalez Arrate Irratien hitz egiten du astelehenean eta parte-hartzaileek oso gustuko dute. Hitzaldia eman ondoren, landa eremuko emakumeentzat bereziki egindako dieta batzaldia eta banatuak du Gonzalezek, nahi duenak txerxa eraman dezan.

**Zein dira osasun arloan emakume baserritarrek dituzten arazo nagusiak?**

sustatu nahi dugun.

### Hitzez Elkartearen pentsaera hori aldatzeko ekimenak antolatzen dituzu, ezta?

Bai, landa eremuko emakumeak antzeko egoera beste ikuspegitik batetik aztertzeko aukera ematen du. Izan ere, parte-hartzaile bakoitzak konturatuzen da egoera ez duela berak soilik bizi, besteek ere antzeko egoera pasa dutela edo argarotzen ari direla. Elkarlanean arazoi aurre egiteko irtenbide berriak ere badaudela konturatuzen dira parte-hartzaileak. Hori sustatu nahi dugun.

## Turismo teknikari izateko hautagaiek bihar egingo dute azterketa

**Gizartea** » Biharkoa bosgarren azterketa izango da, eta hautagaiek ingeles eta frantses maila erakutsi beharko dute

**A. LARRAÑAGA**


Zumaiaiko Udala Turismo teknikari bila dabil, eta horietarako deialdi irekia egin zuen herritarren artean. Jende mordoak eman du izena eta lanpostua betetzeko aurkeztu diren hautagaia hainbat

azterketa egiten ari dira, Udalak postua betetzeko egokiena zein den aukeratu dezan.

### Hitzordua, 10:30ean

Horren harira, bihar goizean Turismo teknikari postua betetzeko hautagaiek bosgarren azterketa egingo dute. 10:30etan hasiko da eta frantses maila erakusteko frogainditu beharko dute.

Aurrekoetan bezala, azterketa-ko emaitzak [www.zumaia.net](http://www.zumaia.net) webgunean argitaratuko dituzte.



Inda Mendiko Elkarteke kideak mendiaz gozatzen. INDA MENDI ELKARTEA

## Lau eguneko irteera antolatu du Inda Mendik Pirinioetara

**Kirola** » Aurtengo Herrialde Katalanetako Pirinioa ezagutu ahaliko dute irteeran parte hartzen dutenek

**A. LARRAÑAGA**

Aurtengo sampedrotarako ere Inda Mendiko Elkarteak ez du hitsek egin, eta lau eguneko mendirteera antolatu du Pirinioetara. Elkarte-ko kideek azaldu dutenez, Herrialde Katalanetako Pirinioa ezagutuko dute aurtten, Vall d'Aran eskualdeko Baqueira inguruan.

### Kataluniako Pirinioa ezagutz

Neguan elurretako kirolak egiteko toki aproposa izateaz gain, udan ingurumenaz gozatu eta paisaia ederrak ikusteko aukera ematen du Baqueira ingururako. Hori dela eta, ekainaren 26tik 30era irteera

antolatu dute Inda Mendiko kideek. Himalaia Horeland hartuko dute ostatu irteeran parte hartzen dutenek, mantenu erdian; gainera, egunero ibilaldi desberdina egingo dute Baqueira ingurua ezagutzeko.

### Izena emateko epea zabalik

Lau eguneko txangoan parte hartu nahi dutenek ekainaren 19a bitartean izango dute izena emateko aukera. Bazki deak 212 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 235 euro.

Diru hori Euskadiko Kiurako hurrengo konatu korrontean sartu beharko dute parte-hartzaileek norberaren izenarekin: 3083500374403700070083 zenbakian, hain zuzenera.

Ondoren, diru-sarrera egirira Goko Estankoen utzi edota [indamendi@gmail.com](mailto:indamendi@gmail.com) helbidera bidali beharko dute.